

2026/04/25, BASABURUKO UDALA- A EREDUA

TTIKIENA HAUR ESKOLAKO HEZITZAILE LANPOSTURAKO ORDEZKAPEN ZERRENDA.

1- Zer ezartzen du ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuak?

- A) Nafar Gobernua eta Udalen arteko finantziazioa.
- B) Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa, eta ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta hezkuntza edukiak.
- C) Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Bigarren Ziklorako hezkuntza edukiak.
- D) Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako irakaskuntzen Curriculumua.

2- Zein da haur batek haur eskolan eman dezakeen ordu kopuru gehiena, 28/2007 Foru Dekretuaren arabera?

- A) Bost ordu.
- B) Sei ordu.
- C) Zazpi ordu.
- D) Zortzi ordu.

3- Zer esan nahi du nerbio sistemaren madurazioa zefalo-kaudal eta proximo-distal legeen arabera ematen dela?

- A) Gorputzaren ardatza eta goiko parteko gorputz adarren kontrola, ardatzetik hurrungo dauden gorputz atal eta beheko gorputz adarren aurretik izaten dela.
- B) Lege horiek hizkuntzaren garapenari egiten diote erreferentzia.
- C) Motrizitate finaren garapena oinez hasi haurretik ematen dela.
- D) Eskuekin pinza egitearen keinua lehenbiziko garatzen dela lege horiek direla eta.

4- Donald Winnicotten arabera, zein da *“ama nahiko onaren”* (*“la madre suficientemente buena”*) funtzioa garapenaren lehen etapetan?

- A) Haurraren berehalako independentzia bultzatzea.
- B) Haurraren beharretara egokituz, zailtasun txikiak gainditzea baimentzea.
- C) Lehen haurtzarotik hasita arau zurrinak ezartzea.
- D) Batez ere garapen kognitiboa estimulatzea.

5- Norena da ondoko hausnarketa? *Gure gorputza ez da deus bestearen gorputza gabe, bere existentziaren konplize.*

- A) Julián de Ajuriaguerra.
- B) Piaget.
- C) Bronfenbrenner.
- D) Rebeca Wild.

6- Hauetako zein esaera da Luis Siguerorena?

- A) Tonua inoiz erabat itxia ez dagoen zerbait da, heldu eta harremanekin eraikitzen dena.
- B) Garrantzitsua da hizkuntzaren garapenaren mugarriak kontuan hartzea.
- C) Sei hilabetetik aurrera dago gomendatuta elikadura osagarria.
- D) Haurren adimena eskuetan dago.

7- Hauetako zein esaera da Maria Montessorirena?

- A) Tonua inoiz erabat itxia ez dagoen zerbait da, heldu eta harremanekin eraikitzen dena.
- B) Garrantzitsua da hizkuntzaren garapenaren mugarriak kontuan hartzea.
- C) Sei hilabetetik aurrera dago gomendatuta elikadura osagarria.
- D) Haurren adimena eskuetan dago.

8- Haur Eskolako denboraren antolaketa:

- A) Hezitzaile eta profesionalen ordutegien arabera ezarriko da.
- B) Ez da garrantzitsua eguneko martxarako.
- C) Egitura orokor bati eutsi behar dio, haurrari segurtasuna emateko eta etorriko dena aurreikusteko, beti ere malgutasunez, eta ahal den neurrian haurren beharretara egokituta.
- D) Patioko ordutegia da ardatz, eta horren inguruan antolatuko da gainontzekoa.

9- Aipatzen den adina kontuan hartuta, zein portaera litzteke bereziki goiztiarra?

- A) 18 hilabetetan bi hitzez osaturiko esaldiak osatzea.
- B) 3 hilabetetan eserita mantentzea.
- C) 2 urtetan hankak txandakatuta eskailerak igotzea.
- D) 3 hilabetetan irribarre egitea.

10- Adierazi zein erantzun den zuzena material aukeraketari dagokionez:

- A) Hezitzaileek sortutako material guztia baztertu behar da, segurtasuna dela eta.
- B) Haur eskolan ez da material berrerabilgarririk egon behar.
- C) Araututa dago material guztia katalogoetatik hartu behar dela.
- D) Material ez estrukturatuko kopuru handia izatea interesgarria da, aldian aldian aldatuko dena.

11- Bai “altxorren saskia” bai “jolas heuristikokoak” honako jolas proposamenak dira:

- A) Esplorazio eta esperimendazio jolasak.
- B) Jolas sensoriomotoreak.
- C) Jolas sinbolikoa eta antzerkia.
- D) Errepresentaziozko jolasak.

12- Zein autorek izendatu eta azaldu zuen “*hurbileko garapen gunea*” kontzeptua bere teorian?

- A) Jean Piagetek.
- B) Ausubelek.
- C) Vygotskyk.
- D) Brunerrek.

13- Helduarekiko lotura harremana dela eta, adierazi zein den esaldi zuzena:

- A) Hezitzailea inoiz ez da izango atxikimendu figura.
- B) Haurra eskolan dagoenean, hezitzailea izango da atxikimendu figura nagusia, segurtasuna emanez eta dependentzia sustatuz.
- C) Hezitzailea haurrak eskolan izango duen atxikimendu figura izango da, menpekotasunetik autonomiarako bidean bidelagun, segurtasuna emanez.
- D) Gurasoak izango dira bigarren mailako atxikimendu figurak, hezitzaileen ondotik.

14- Loris Malaguzziren arabera, entzuteari dagokionez, zein da zuzena?

- A) Entzutea, haurren kultura ulertu ahal izateko artea da, pentsatzeko, egiteko, galdetzeko, teorizatze... duten era.
- B) Entzutea inguruko soinu guztien artean hizkuntzari dagozkionak bereiztea da.
- C) Entzutea, haurrek esaten dituzten hitzak erne erne aditzea da.
- D) Erantzun guztiak onak dira.

15- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua:

- A) Administrazioak egiten du, Hezkuntza Departamentuak.
- B) Eskolako lan taldeak osatzen duen dokumentua da, zuzendariaren gidaritzapean, eta eskolako hezkuntza norabidea gidatzen duen dokumentu bizia da.
- C) Zuzendariak egin beharreko dokumentua da, eta hezitzaileek aurrera eraman beharrekoa.
- D) Erantun guztiak okerrak dira.

16- Nor da Ikaskuntza Esanguratsua kontzeptuaren sortzailea?

- A) Bruner.
- B) Vygotsky.
- C) Malaguzzi.
- D) Ausubel.

17- Zer adierazten du Ikaskuntza Esanguratsuak?

- A) Haurren egunerokoan arruntak diren egoerak izaten dira.
- B) Haurrak ezagutzen duenarekin harremantzen du proposamen berria, lotura eginez, erronka txikiak gaindituz.
- C) Haurrak era globalizatuan barneratzen du ezagutza berria.
- D) Haurrak errepikatuz barneratzen ditu ezagutzak.

18- Bikote Hezitzaileak:

- A) Taldearen ardura partekatzen du.
- B) Aberastasuna eta konplexutasuna handitu egiten da: eredu gehiago, ideia gehiago, behatzeko aukera gehiago, hausnarketa partekatuak, interpretazio zabalagoak...
- C) Antolaketa aukera desberdinak ematen ditu: taldea banatzea, talde txikia...
- D) Erantzun guztiak zuzenak dira.

19- Zenbat haur egon daitezke gehienez adin tarte guztietako (0-3) unitate misto batean, 28/2007 Foru Dekretuaren arabera?

- A) 8 haur.
- B) 12 haur.
- C) 5 haur.
- D) 10 haur.

20- 61/2022 Foru Dekretuaren jarraibideak kontuan hartuta, ze helburu orokorrak gidatuko du haur hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza eskuhartzea?

- A) Irakurketa-idazketa konpetentziei lehentasuna eman, ondorengo etapetan arrakasta bermatzeko.
- B) Haur bakoitzaren garapen integral handiena lortzen laguntzeko oinarriak modu progresiboan garatu eta finkatzea.
- C) Kontsumo arduratsuekin lotutako helburuak bigarren ziklora arte atzeratzea.
- D) Hezkuntza praktika izaera asistentzian soilik zentratzea, oinarrizko jakintzen plangintza sahiestuz.

21- Zein da aldi berean arituko den langileen gutxieneko kopurua 28/2007 Foru Dekretuaren arabera?

- A) Aldi berean ari diren unitate kopuruaren bikoitza, hezitzaile bikoteak osatuz.
- B) Aldi berean ari diren unitateen kopurua.
- C) Aldi berean ari diren unitateen kopurua gehi bat.
- D) Aldi berean ari diren unitateen kopurua ken bat.

22- 61/2022 Foru Dekretuaren arabera, zer dira Ikaskuntza Egoerak?

- A) Eskolan ematen diren goera guztiak dira Ikaskuntza Egoerak.
- B) Ikasleek funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak gauzatzea dakarten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratu eta garatzen laguntzen dutenak.
- C) Ikasleek etapa amaitzean erdiestea espero diren lorpenak, funtsezko konpetentziak bereganatzearekin lotuta.
- D) Arlo bateko berezko edukiak osatzen dituzten ezagutzak, abileziak eta jarrerak, konpetentzia espezifikoak eskuratzeko ikasi beharrekoak.

23- Zein dira Haur Hezkuntzako arloak, 61/2022 Foru Dekretuaren arabera?

- A) Harmonian Haztea, Ingurunea Deskubritzea eta Esploratzea; Errealitatea Komunikatzea eta Irudikatzea.
- B) Afektuak eta gizarte harremanak; Gorputza; Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea; Komunikazioa eta hizkuntza; Gorputz adierazpena, plastikoa eta musikakoa.
- C) Harmonian Haztea, Gorputza eta Adierazpen plastikoa eta musikakoa.
- D) Gorputza, Ingurunea Deskubritzea eta Esploratzea, Komunikazioa eta Adierazpena.

24- Non kokatzen da Haur Eskolako Proposamen Pedagogikoa?

- A) Hezkuntza Proiektuaren esparruan.
- B) Kudeaketa Proiektuaren baitan.
- C) Antolamendu eta Funtzionamendu arauen barruan.
- D) Hiru erantzunak zuzenak dira.

25- Zein da Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko printzipio pedagogikoa?

- A) Hezkuntzako ekintza bideratzen da ikasi, ezagutu, miatu, saiakuntzak egin, ezagutu eta ulertzeko gozamina sortzera, eta norberaren errealizazioari eta parte-hartze sozialari begira egonen den hezkuntza prozesuaren oinarria izanen da.
- B) Haurrentzat interesa eta esanahia izanen duten jarduera globalizatuen bidez landuko dira hezkuntzako edukiak. Ikastetxeetako eguneroko bizitzako ohiko egoerak jarduera horien ardatza osatuko dute.
- C) Esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarrituko dira laneko metodoak. Segurtasun, afektu eta konfiantza giroan aplikatuko dira, haur bakoitzaren garapen erritmoa eta inguru familiar eta soziokulturaleko esperientziak erabat errespetatuta, autoestimua eta gizarteko integrazioa bultzatzeko.
- D) Hiru erantzunak zuzenak dira.

26- Nola zehaztuko da autonomia pedagogikoa eta kudeaketakoa Nafarroako 0 eta 3 urte bitarteko ikastetxeetan?

- A) Hezkuntza Proiektuan eta Kudeaketa Proiektuan, bai eta ikastetxearen antolamendu eta funtzionamendurako arauetan ere.
- B) 0-3 ikastetxeek ez dute autonomia pedagogiko eta kudeaketakorik.
- C) Nafar Gobernuako Hezkuntza Departamentuak proposatzen duen Hezkuntza Proiektuaren plantilla oinarri hartuta.
- D) Haur Eskolako talde bakoitzak bere Proposamen Pedagogikoa eginez.

27- Zenbat dira 61/2022 Foru Dekretuan deskribatzen diren funtsezko kompetentziak?

- A) Bi.
- B) Lau.
- C) Sei.
- D) Zortzi.

28- Ondorengo zerrendako zein EZ da funtsezko kompetentzia bat?

- A) Eleaniztasunerako kompetentzia.
- B) Matematikarako kompetentzia, eta zientzia, teknologia eta ingeneritzarako kompetentzia.
- C) Antzerkia eta arte eszenikoetarako kompetentzia.
- D) Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

29- Nolakoa izango da ebaluazio prozesuaren teknika nagusia?

- A) Behaketa sistematikoa.
- B) Grabaketa sistematikoa.
- C) Behaketan oinarritutako azterketak egun zehatzetan.
- D) Aurretik finkatutako item.etan oinarritutakoa.

30- Nola egingo da ebaluazioaren transmisioa familiekin?

- A) EDUCA bidez soilik, nahita nahiez.
- B) Familia guztiekin egindako talde bilera batean, denak batera.
- C) EDUCA bidez, aurretik Itemak definituz eta kuantitatiboki neurtuta, objetiboa izateko zainduz.
- D) Familia bakoitzarekin elkarrizketa bidez, kualitatiboki balioa emanaz haurraren prozesuari.

31- Zer arautzen du martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak?

- A) Nafar Gobernu eta Udalen arteko finantziazioa.
- B) Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa, eta ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta hezkuntza edukiak.
- C) Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Bigarren ziklorako hezkuntza edukiak.
- D) Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako irakaskuntzen Curriculuma.

32- Nola deskribatzen da Haur Hezkuntza 61/2022 Foru Dekretuan?

- A) Berezko nortasuna duen hezkuntza etapa bezala, jaiotzatik 6 urte artekoa.
- B) Bi ziklo dituen etapa bezala, ziklo bakoitza hiru mailakoa.
- C) A eta B erantzunak zuzenak dira.
- D) Haurra eskolaten denetik sei urte bete arteko etapa bezala.

33- Hauetako zein baieztapen da zuzena?

- A) Haur Hezkuntza borondatezkoa da.
- B) Hezkuntza etapa hau, hau da, Haur Hezkuntza, doakoa da.
- C) Lehen zikloa hartzen duten ikastetxe guztiak publikoak dira.
- D) A eta B erantzunak zuzenak dira.

34- Nola antolatzen dira hezkuntza edukiak?

- A) Haur Hezkuntzako bigarren zikloari begira.
- B) Haurren esperientziari eta garapenari dagozkien esparruekin bat datozen arloetan antolatzen dira, haurrentzat interesa eta esanahia duten ikaskuntza proposamen globalizatuen bidez.
- C) Irakurketa idazketa eta garapen sozio afektiboa ardatz hartuta antolatzen dira.
- D) Eguneroko errutinetan ordutegiak zehatz mehatz jarraituz eta bakoitzean dagozkienak landuz.

35- Nork arautzen du ikasturteko egutegia?

- A) Udal bakoitzak bere arauak ezartzen ditu.
- B) Haur Eskola bakoitzak bere arauak ezartzen ditu.
- C) Urtez urte Nafar Gobernuak argitaratzen ditu haur eskolek ikasturteko egutegia egiteko jarraibideak.
- D) Hiru erantzunak okerrak dira.

36- 28/2007 Foru Dekretuaren arabera, zer bildu behar ditu Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak?

- A) Printzipioak, balioak eta jarduketaren lehentasunak, edo ikastetxearen beraren izaera eta proposamen pedagogikoa.
- B) Ikastetxeko giza baliabide eta baliabide material eta ekonomikoak antolatzeko dokumentuak.
- C) Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak bilduko ditu.
- D) Erantzun guztiak onak dira.

37- Zein izango da familien parte hartzea Haur Eskolako funtzionamenduan?

- A) Familiek haurren bazkaria ekarriko dute egunero, txandaka.
- B) Familiak ezingo dira sartu pasabidetik aurrera, eskolako martxa ez oztopatzeko.
- C) Familien parte hartzea ezinbestekoa izango da, haurren hezkuntza prozesuan eskolarekin elkarlanean ari baitira.
- D) Familiekin harremana elkarrizketa pertsonaletara mugatuko da.

38- Harrera aldia:

- A) Une esanguratsua da, haurrak familiengandik banatzen diren lehen aldia izaten da askotan, eta horregatik bereziki zaindu beharrekoa.
- B) Hezitzaileak eta eskolako lan taldea eguneroko erritmora ohitzeko aldia da.
- C) Haur Eskolako ordutegia pixkanaka zabaltzeko aldia da.
- D) Erantzun guztiak okerrak dira.

39- *Jolasa, ikerketaren forma gorena da (el juego es la forma más elevada de investigación), norena da?*

- A) Aucouturier.
- B) Einstein.
- C) Gimeno.
- D) Piaget.

40- Zein da hezitzailearen funtzioa?

- A) Haurren prozesua akonpainatzea, segurtasuna eta konfidantza emanez.
- B) Egunerokoan haurrekin partekatutako une pribilegiatuetan haien gaitasunen ispilu izan eta autoirudi positiboa eraikitzen lagundu, autoestima indartuz.
- C) Lan taldean behaketa eta hausnarketak partekatu, hezkuntza jarduera aberastuz eta behar dena hobetuz.
- D) Erantzun guztiak onak dira.

41- Bazkaria, higiena eta loarekin lotutako errutinak:

- A) Familiaren hutsunea betetzeko dira.
- B) Etapa honetako hezkuntza baliabide ezinbestekoa dira.
- C) Egunerokoa zehatz mehatz programatzeko balio dute.
- D) Momentu hauek ez dute tarterik haur eskolan.

42- Ze autorek deskribatzen du behaketa honela: *haurra errespetatu eta erne entzutea da, maitasunez, taula, estadio eta aurrez ezarritako garapeneko mailetan estutzeko tranpan erori gabe.*

- A) Malaguzzik.
- B) Bondiolik.
- C) Brunerrek.
- D) Cabanellasek.

43- Ze autorek izendatu zituen *formatoak* hezitzailea eta haurraren arteko kooperazioaren bidez hizkuntzaren garapenerako errutinazko egoerak?

- A) Malaguzzik.
- B) Anna Bondiolik.
- C) Brunerrek.
- D) Cabanellasek.

44- Zein da lan pedagogikoaren dokumentazioaren helburu nagusia 0-3an?

- A) Hezkuntza Administrazioarako txostenak prestatzea.
- B) Ikaskuntza prozesuei ikusgarritasuna eman, praktikaren inguruan hausnartu eta eskuhartze pedagogikoa hobetzea.
- C) Haurren argazki eta bideo kopuru zabala jasotzea, ondoren familiekin partekatzeko.
- D) Idatziz jasota gelditzea lan taldean emandako eztabaida guztiak.

45- Garapen kognitiboan oinarritzkoa den *objektuaren iraunkortasunaren kontzeptua (permanencia del objeto- Piaget, estadio sensoriomotorea) 0-3 etapan sendotzen da. Zein da garapen afektiboan duen eragin nabarmenena?*

- A) Funtzio sinbolikaren bereganatzea, errepresentazioarekin batera.
- B) Objektuak sailkatzeko pentsamendu logiko matematikoaren lehen pausoak ematea.
- C) Objektu edo pertsona batek denbora eta espazioan irautearen ulermena, nahiz eta zuzenean ez ikusi, bai indibiduoazioan bai banaketan laguntzen duena.
- D) Bizipen sensoriomotoreen bidez koordinazioa garatzea.

46- Zein autore ezagutzen da haurren mugimendu librea eta jarduera autonomoa errespetatzearen beharra azpimarratzeagatik, batez ere zaintza eta jolas momentuetan?

- A) Loris Malaguzzi.
- B) Emmi Pikler.
- C) André Lapierre.
- D) María Montessori.

47- Zein izango da hezitzailearen papera haurrak mugimendu librearekin esperimentatzen duen bitartean Emmi Piklerren pedagogiaren arabera?

- A) Mugimenduan zuzenean eskuhartu gabe, espazio seguroa proposatzeaz arduratuko da, presentzia erne eta goxoaz behatuz.
- B) Haurrak bere kabuz bereganatu gabeko posturetan jarriko du, aurreratzen laguntzeko asmoarekin.
- C) Progresioa bilatuko duen ariketa multzoa prestatuko du, haurrak postura desberdinak pausoz pauso beregana ditzan.
- D) Hiru erantzunak okerrak dira.

48- Zein izango da Aucouturierren Psikomotrizitate Praktikako saioetan irteerako erritualean kontaktzen den ipuina-pasadizoaren funtzioa?

- A) Psikomotrizitate saioari amaiera lehen bait lehen ematea.
- B) Saioan zehar bizitutakoetatik deskantsatzea, hurrengo jardueretara pasatzeko.
- C) Irteera erritualean ez da ipuina kontaktzen.
- D) Egitearen plazerretik pentsatzearen plazererako transizioan laguntzea, errepresentazioari bidea emanez.

49- Ze autorek proposatzen du haur eskola hezkuntza zerbitzu ireki bezala, haurrak eta haien inguru hurbilaren (auzoa, herria, eskualdea) artean hartu-eman/ lotura ezinbestekoarekin?

- A) Loris Malaguzzik.
- B) Emmi Piklerrek.
- C) André Lapierrek.
- D) María Montessorik.

50- Norena da hezkuntzako “andamiajearen teoria”?

- A) Vigotskyrena.
- B) Aucouturierrena.
- C) Piagetena.
- D) Brunerrena.

ERRESERBAKO GALDERAK

1- Nola lotzen da garapen afektiboa garapenaren beste arloekin?

- A) Garapen afektiboa modu isolatuan ematen da eta ez du garapeneko beste arloetan eraginik.
- B) Garapen sozialarekin soilik du elkarreragina.
- C) Modu integral eta holistikoan
- D) Soilik garapen kognitiboarekin du harremana.

2- 61/2022 Foru Dekretuaren arabera nola daude izendatuta edukiak?

- A) Bost jakintza arlotan banatuta
- B) Oinarrizko kompetentzietan.
- C) Kompetentzia espezifikoko, ebaluazio irizpide eta oinarrizko jakintzetan.
- D) Erantzun guztiak okerrak dira.

3- Ze autorerena da ikaskuntza globalaren teoria edo printzipioa?

- A) Decrolyrena.
- B) Piagetena.
- C) Montessorirena.
- D) Piklerrena.